

KANALAK

Proiektu honen hasieran, gure produktuaren berri emateko eta zabaltzeko webgune bat sortuko dugu. Bertan, gure produktuen informazio ugari egongo da, telefono zenbaki bat eta korreo elektronikoko bat jarriko dugu produktuan interesatzen direnak gurekin kontaktuan jarri ahal izateko. Gainera, gure enpresak arrakasta izan dezan enpresak komunikatzeko eta segmentu-merkatuei bere balorezko kanala helarazteko modua eraginkorra izan behar da.

Gure produktuaren salmentak igotzeko, web orrialde bat sortuko dugu, bertan gure produktuaren xehetasunak, eskaintza berriak, etab. azalduz eta honez gain, bezeroek bertan erosteko aukera ere izango dute. Gainera, sare sozietan ere kontu bat sortuko dugu gazteek gure produktua ikus dezaten.

Gure enpresak arrakasta izan dezan enpresak komunikatzeko eta segmentu-merkatuei bere balorezko kanala helarazteko modua eraginkorra izan behar da.

Komunikazio kanaletan, sare sozialak erabiliko ditugu, Instagram batez ere. Bertan gure produktuak ezagutzera emango ditugu, gure diseinuen irudiak argitaratuz. Baita gure bezero potentzialei ere gure produktua aurkeztuko diegu eta gure publizitatea egin dezaten, 200€-ko kostua edukiko dugu.



Banaketa-kanala, Aimar Tomek duen furgoneta batekin egingo dugu eta bezeroengana joango gara, eskatutako helbidera, beraientzat eroso izan dadin. Hasiera batean, bezeroak Euskal Herri eta Espainia mailakoak izango dira, hori dela eta oraingoz, furgoneta honekin moldatuko gara. Enpresak gora egin ahala, garraio enpresa kontratatuko dugu, "Stop and Go Transporters" eta horrela, Europa mailara zabal gaitzke.

Gainera, denda fisikoa izango dugu, bezeroen batekin arazoak egonez gero, aurrez aurre konpondu ahal izateko. Bertan, bezeroei produktuari buruzko informazioa emango diegu eta interesa izanez gero, kaskoa erosteko aukera ere izango dute.

Hasieran, sare sozialen bidez gure bezero potentzialekin harremanetan jarriko gara, partikularki gure web gunean ditugun produktuak ikus dezaten eta gure

produktua ezagutzera emateko. Negozioekin, ordea, telefonoz jarri gaitzke kontaktuan edo lokalera gerturatu.

Gure harremana bezeroarekin interneten bidez eta aurrez aurre izango da, webgune eta sare sozialen bidez, baita denda baten bidez ere. Aukera direla medio, bezeroak gurekin harremanetan jarriko dira nahi duten erara, erraztasun eta azkartasun handiarekin.

